

LORE BAT MEREZIYA

ON MARZELINO SOROA-RI



Gure maisu zana da
ill, eta eramana,
beñere ez da aztuko
utzi zuben frima,
arrek maitatzen zuben
gure egizko Ama,
eta eraman digu
Jaunakberegana.
Andik dudarik gabe
lagunduko gaitu,
Jaunaren lege santuz
komeni bazaigu,
Euskal-azi ederra
bigaldu bezaigu.
Euskal semiak gera

beteak chit fedez
ta naiz gauzak ibilli
biziro aldrebez
sartuko degu aziya
zuzen tri indarrez,
Euskara geldideyen
berriturik legez.
Ark erakutsitako
lege chit zuzenak
zabalduko ditugu
euskaldun geranak,
argira emanikan
bertsolari onak
eta izkribatzalle
on ta garbiyenak.

JOSÉ MARINO ARRIETA.

Donostian, 1902-ko Abuztuan.